# jokulariak134

EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BOLETINA
BOLETÍN UNIÓN DE ACTORES Y ACTRICES VASCAS
uda 2024 verano

ESPAÑA
FRANQUEO CONCERTADO
Publicaciones Periódicas

# ANA, KIKE, ADIORIK EZ





AISGE
es lo tuyo
Si eres actor o actriz audiovisual,
¡HAZTE SOCIO!
No te costará nada,
Te beneficiarás de nuestra labor asistencial y formativa
Y recibirás los derechos que te corresponden
aisge
www.aisge.es
Tel. 943 271 599



134

uda
verano
2024
**Azala** Argazkiak
Son Aoujil eta
M. Díaz de Rada

12





06 Fotografías ©Gara y M. Díaz de Rada



16

# jokulariak

EAB
EUSKAL AKTOREEN
BATASUNAREN BERRIPAPERA

DONOSTIA
Portuetxe nº 23 A
4º Planta ofic. 4/08
20.018 Donostia
Tel. 943 31 48 22

BILBAO
Bilbaoeszena
c/ Juan de Gardeazabal 3
(entrada por c/Fica)
BILBAO 48.004
Tel. 944 33 37 86

eabdonostia@euskalaktoreak.eus
eabbilbao@euskalaktoreak.eus
www.euskalaktoreak.eus

**Koordinazioa eta edizioa**
Jon Koldo Vázquez
**Testuen zuzenketak**
Uzuri Guridi, Rakel Ezpeleta

**Maketazioa, diseinua**
I. Z.
**Inprimategia**
Antza
LG/DLSS168/2000

Gogoratu aldizkari hau denona dela eta gustura hartuko genituzkela zure iritzi eta artikuluak.

Recordad que esta revista es de todas y todos, y que gustosamente recibiremos tus opiniones y artículos.

# AURKIBIDE

04 **EDITORIALA**

06 **Oroimenean, Ana eta Kike**

12 **AESCI lanza la primera Guía para el trabajo de escenas íntimas**
Rebeca Medina

14 **Pantailak euskaraz, 3 urtez**
Alex Aginagalde Lopez

16 **Sormenaren parte izan Bizkaian**

19 **EGINDAKO IKASTAROAK**

Editoriala

# ADIORIK EZ LAGUNAK



Txema Blasco en *Badaezpada El vecino afectuoso,* de Pello Varela

Jokulariak aldizkariaren edizio bakoitza erronka berri bat da, aldizkaria zuen interesekoak diren edukiez hornitzen saiatzen gara, elkartetik garatzen ditugun jardueren errepasoa egiten dugu eta aktiboki parte hartzen duzuen pertsonei ahotsa ematen dizuegu. Zenbaki bakoitza ahalik eta gehien zaintzen saiatzen gara, atal bakoitzak merezi duen mimoarekin eta plazerretik abiatuta.

Hala ere, 134 zenbaki hau kalera ateratzea ez da lan erraza izan; izan ere, edizioa itxi eta astebetera, Ana Perez gure lankidea hil zen, eta bi aste geroago, Kike Diaz de Rada. Duela 30 urte baino gehiagotik Euskal Herriko arte eszenikoen garapenean funtsezko figura izan diren bi afiliatu, ez bakarrik aktore, antzerkigile, zuzendari edo irakasle gisa, baizik eta sektorea hobetzen lagundu duten pertsona proaktibo gisa, borondatezko lanetik abiatuta gainera.

Biek merezi dute gure buletinean gogoratzea, eta horregatik erabaki genuen aldizkariaren irteera atzeratzea eta merezi duten lekua uztea.

Biei eskainitako atala testu labur batekin irekitzen dugu. Idazlea Patxi Perez da, EABko batzordekidea, Anaren anaia eta Kikeren laguna. Anaren TAEko ikasleek eskolan ikasitako pasadizoak jasotzen dituzte eta Eneko Olasagastik eta Isidoro Fernandezek agur gutun bana idazten diote Kikeri.

Eta editorial hau berridazten ari garela, beste berri triste bat iritsi zaigu: Txema Blasco EABko kide ohiaren heriotza. Hainbat arrazoi direla medio, ezin dugu gehiago luzatu buletinaren irteera eta hurrengo orrialdeetan ezin izango diogu bere lekua eskaini. Gure omenaldia eta oroitzapena lerro hauetatik. Adiorik ez Txema.

Gure lankideei eskainitako atalaren ondoren, gaurkotasuneko bi gairi erreparatuko diegu. Lehenik eta behin, AESCIk argitaratu berri duen ikus-entzunezko fikzioan eszena intimoak lantzeko gidaren inguruko artikulu bat dugu, Rebeca Medinak sinatua. Bestalde, Alex Aginagaldek, Pantailak euskaraz ekimeneko bozeramaileak, plataforma horrek azken hiru urteetan egindako lanaren eta euskarazko fikzioaren egungo egoeraren laburpena egin digu.

Buletina ixteko, EABk bultzatutako jardueren berri ematen dugu. Lehenik eta behin, Sormen Bizkaian parte hartu zuten zuzendarien eta aktoreen testuak izango ditugu, eta, amaitzeko, Pablo Razukek Donostian emandako ikastaroan parte hartu zuten bi pertsonaren esperientziak bilduko ditugu.

Ez dugu agur esan nahi Jokulariak 134 honetan lagundu duzuen pertsonen ahalegina eskertu gabe. Batez ere, lehen aipatutako arrazoiengatik argitaratu ezin izan diren testuak idatzi dituztenei. Mila esker bihotzez!

Udatik bueltan ikusiko dugu elkar.

# **VUESTRO LEGADO** PERDURA

Cada edición de Jokulariak es un nuevo reto, intentamos dotar la revista de contenidos que sean de vuestro interés, hacemos un repaso por las actividades que desarrollamos desde la asociación y damos voz a aquellas personas que participáis activamente en ellas. Intentamos cuidar al máximo cada número y lo hacemos desde el placer que da tratar cada apartado con el mimo que se merece.

Sin embargo, sacar a la calle este número 134 no ha sido tarea fácil, ya que, a una semana del cierre de la edición, falleció nuestra compañera Ana Pérez y dos semanas después nuestro compañero Kike Díaz de Rada. Dos afiliados que han sido figuras clave en el desarrollo de las artes escénicas de Euskal Herria desde hace más de 30 años, no sólo como actores, dramaturgos, directores o docentes, sino como personas proactivas que han colaborado en mejorar el sector, desde la constancia y el trabajo voluntario.

Ambos merecen ser recordados en nuestro boletín y es por eso que decidimos posponer la salida de la revista y cederles el espacio que merecen.

Patxi Pérez, actual miembro de la junta de EAB, hermano de Ana y amigo de Kike, introduce con un breve texto la sección que dedicamos a ambos. Alumnas del TAE de Ana recogen anécdotas de su aprendizaje en la escuela y Eneko Olasagasti e Isidoro Fernández redactan sendas cartas de despedida a su amigo Kike.

Y mientras redactamos nuevamente esta editorial, nos llega la triste noticia del fallecimiento de nuestro también compañero de trabajo y antiguo afiliado de EAB, Txema Blasco. Sentimos no poder dedicarle también su espacio en las siguientes páginas, por diferentes motivos, no podemos dilatar más la salida de Jokulariak. Nuestro homenaje y recuerdo desde estas líneas. Adiorik ez Txema.

Tras la sección dedicada a nuestros compañeros, nos centramos en dos temas de actualidad que creemos que son de vuestro interés. Primero contamos con un artículo en torno a la guía para el trabajo de escenas íntimas en la ficción audiovisual que acaba de publicar AESCI, firmado por una de sus co-fundadoras, Rebeca Medina. Alex Aginagalde, portavoz de Pantailak euskaraz, nos hace un resumen del trabajo realizado por dicha plataforma en los últimos tres años y del estado actual de la ficción en euskera.

Para cerrar este número nos hacemos eco de las actividades impulsadas desde EAB. Primero, contamos con los relatos de los directores y parte de los actores y actrices que participaron en Sormen Bizkaia y, para finalizar, recogemos las experiencias de dos personas que asistieron al curso impartido por Pablo Razuk en Donostia.

No nos queremos despedir sin agradecer el esfuerzo de las personas que habéis colaborado en este Jokulariak 134. Sobre todo, a aquellas cuyos textos no van a poder ser publicados por los motivos antes mencionados.

Nos vemos a la vuelta del verano.





Argazkiak ©Diario Vasco
eta M. Díaz de Rada

# OROIMENEAN: ANA eta KIKE

Dramaturgias emocionales que se crean y se componen justo en el momento en el que ella me coge en sus brazos por primera vez. Años más tarde cuando él me estrecha amistosamente la mano.
Una hermana así lo es para siempre y un amigo así también lo es.
Quiere el destino que disfrute y aprenda con ella, igual con él.
Tan comprometida ella, tan entregado él.
Y siempre "pa lante" y tanto que "pa lante".
Ella, precisa, exigente, acertada.
Él, meticuloso, atento, elegante.
Me los quise comer viéndoles en escena, me los quise comer después.
Dramaturgias diferentes que dieron forma a mis textos, a mi cuerpo, a mis acciones. En espacios distintos pero en tiempos de idéntico valor.
Y así se va ella y así se va él.
Dramaturgias emocionales que me hacen llorar y reír…
A lo mejor se trata de esto, de seguir creando y de seguir componiendo.
Final de primavera y principio de verano.
En vuestro último estreno, nubes y claros.
**Patxi Pérez**



# ANA IRAKASLE, ANA SORTZAILE

Una pausa en clase. Alguien (que no soy yo, ejem… ya sabéis: una amiga de una amiga de alguien de clase) le dice a Ana

- Es que no sé cómo hacer la ternura
- ¿Cómo que no sabes hacer la ternura? - responde Ana desde una certera incredulidad
- Que no sé hacerla...

Y nos toca volver de la pausa. Al entrar en la clase, Ana enciende las luces y se queda mirando al halógeno.

- Mirad
- El qué Ana, el qué
- Mirad, mirad - insiste.

Todas miramos la luz, ella la enciende y la apaga varias veces durante varios segundos.

- ¿Lo veis?
- ¡El qué Ana, el qué…! - Y Ana echa una risotada.
- Nada, nada... estaba pensando cómo sería ser esa luz… Poneos en círculo, vamos a intentarlo. ¡Encendi da! ¡Apagada! ¡Encendida! ¡Apagada!

Ni qué decir que, por supuesto, ahí salieron 12 bombillas absolutamente diferentes, pero, sin lugar a dudas, éramos bombillas. Así que yo (bueno… alguien que no soy yo...) sabía ser algo que nunca había sido (como una bombilla) pero no sabía ser la ternura que tantas veces había sido... Al decirle esto a Ana me echó una nueva risotada. Vaya, vaya... Qué tía.

Esa fue mi maestra. Esa que dominaba el clásico ejercicio del "sí y además...". Sí a tu ternura y además puedes ser una bombilla. Anitísima… y sus luces.

**Amaya Quiroga Elizalde**

Enciendo la radio… Janis Joplin… un plato de marmitako y yo… mi cuerpo comienza a moverse. Mi brazo izquierdo inmóvil busca la pierna derecha. La pierna derecha sigue a la cabeza, la cabeza a la rodilla izquierda, el brazo derecho vuela y la rodilla derecha sigue a la nariz y la nariz… mira a mi brazo izquierdo… que no se mueve, que tiene miedo, que se esconde… Mi cuerpo perdido escucha una voz, una voz llena de amor, de convicción, de pasión y de respeto que dice… "¿qué te falta como actor/actriz… para creer en tí…?"

Me falta esa compañera, profesora, directora, amiga y confesora. Me falta esa sonrisa perfecta que te quiere, que cree en tí, que te mima, que te valora, que te hace trabajar y trabajar duro. Me falta ese ángel que me hace soñar, volar, y crear. Me haces falta tú, Ana, que nos has enseñado a trabajar, a sentir, a acercarnos al personaje desde las tripas, a llorar y reír de verdad…

Vuelvo a encender la radio… vuelvo a escuchar a Janis Joplin… y me termino ese marmitako… esta vez, mi brazo izquierdo comienza a moverse y el resto del cuerpo le







En la obras *Barda*, *El año de Ricardo*, *El baile* y en un momento de clase.

sigue… y crea una partitura… que surge desde el corazón y dice: "Eskerrik asko Ana, te quiero".
Texto colectivo de "Las Rikardos y Rikardas"
**Mikel Larrañaga, Saioa Royo, Rocio Martinez, Jon Ander Alonso, Silvia Manzana, Gorka Zubeldia, Iñaki Santos**

¡El aire puro de Francia! El cambio continuo de aires, unas veces al norte y otras al sur de los Alpes, daña el instrumento. Hay que afinarlo siempre y siempre desde un punto de vista distinto, para cada lugar, para cada atmósfera en especial.
En esta vertiginosa incertidumbre tan hermosa que es el oficio del arte, todas tenemos la necesidad de absorber sabiduría y experiencia de mentores que nos guíen y que nos hagan sentir. Arrastrado por esta necesidad caí yo en el TAE. Esta escuela admirablemente orquestada por Ana. Nuestra generación tuvo el placer de poner en pie la última adaptación dramatúrgica de Ana. Barda. Una obra creada a partir de otras obras. Un puzzle dramatúrgico complejo. Un Frankenstein monstruoso. Una locura de adaptación. Una menestra de piezas teatrales. Una ida de olla. Un "oye, ¿habéis entendido algo?". Un jarrón de cerámica que se te cae al suelo y lo reconstruyes con Loctite. Un plato de buffet libre. Un berenjenal. Un lío. Un embrollo argumental. Un amasijo de personajes casi Kafkianos. Un rebujo de tramas sin trama. Un despotorre. Un despiporre. Un despertar. Una despedida. Un despiste. Un despliegue. Un despelote. ¡Una desesperación! Un regalo.
Porque a Ana le encantaba jugar con la poesía. Lo fácil es para los cobardes. Y Ana se lanzaba a la piscina. Y efectivamente, con esta obra nos enseñó a todas que "Hay que afinar siempre el instrumento y siempre desde un punto de vista distinto, para cada lugar, para cada atmósfera en especial."
Y como ella bien nos recordaba: "No es difícil, es apasionante".
**Ander Lacalle**



# PARA KIKE

Querido Martin, de vuelta en Alemania, cómo te envidio… Aunque no lo he vuelto a ver desde mis años de estudiante en el Conservatorio, el recuerdo de Unter der linden todavía me conmueve…
Perdón, perdón, he vuelto a confundir la realidad con la ficción, pero es que me parece inimaginable esta realidad en la que ya no estás.
Aunque los pronósticos no fueran buenos, nadie esperábamos un desenlace tan funesto. En nuestra última conversación te dije que tranquilo, que te recuperaras, que teníamos tiempo para vernos… tiempo, qué estafa. La dama de negro debía de tener ya muchas ganas de conocerte, y es que te le habías escapado ya demasiadas veces.
Un superviviente, claro, con una voluntad de hierro, con unas ganas de vivir y de disfrutar, de comer y beber, de discutir sobre lo divino y lo profano, de viajar, de conocer idiomas y cosas nuevas, y de seguir a pesar de todo en el mundillo de los teatreros, buscando textos, dirigiendo, espectador avisado de montajes ajenos, aunque no quisieras volver a actuar por ese pundonor que no te permitía subirte al escenario sin las fuerzas suficientes para entregarte como siempre al mil por cien, y mira que yo te daba la brasa para hacerlo.
Cuánto aprendí a tu lado, amigo. Sabías de historia, de arte, de ciudades y sitios, de teatro y de cine, y ¡de fútbol!, la Real de nuestros amores, y de tratar a la gente, y de hacer amigos y cuidarlos y, sobre todo, de libros, de autores… Te imagino discutiendo ahora con Auster y con Chirbes sobre la estructura de la novela, y yo, inclemente, te castigaba siendo el primer lector de mis novelitas, y tus críticas no sólo eran constructivas, eran amables y amistosas.
Yo te envidiaba, hermano. Sanamente, pero te envidiaba. Tú entrabas en una habitación, en un bar, en un escenario, y tu presencia magnética, tu derroche de virilidad eclipsaba a todos los que allí estaban. No nos conocíamos apenas, no nos habíamos tratado, pertenecíamos a tribus teatreras distintas, pero cómo te admiré y te envidié cuando te vi en aquel *Modigliani* de Orain, y es que verte encima de un escenario era un placer, y luego, compartirlo contigo, un privilegio. Y años más tarde, -lo que es la vida- el mago Bernués nos juntó en aquel mítico *Paradero*, y a partir de aquella gira con el querido Iñaki, nos hermanamos para siempre.
Kike, me quedaban muchas cosas por contarte, peripecias vitales, sinsabores de la jubilación, nuevos libros descubiertos, y me has dejado huérfano de amistad. Sólo me queda recordarte. Repasar con los colegas anécdotas teatrales y vitales, y es que dejas aquí tantos amigos… Adiós, Kike, adiorik ez, descan-





sa tranquilo, porque te lo mereces, hombre de bien, amigo añorado.
Max. Perdón, **Isidoro**

Dos adolescentes cruzan por delante de la comisaría.
Camino de la huelga en el instituto.
Bajo la escondida y atenta mirada de tu ama.
De repente estoy solo, me despierto y, en tromba.
Acuden a mí palabras, situaciones, escenas, mundos, universos.
Aturdido, me he parado en la esquina que lleva a los camerinos.
Al fondo del pasillo, la sombra de un dandi, un seductor, fina estampa, caballero…
¿O era un bufón tal vez…? Nunca lo sabré seguro.
Ha levantado ligeramente el sombrero, bajado la cabeza y ha sonreído, irónico, antes de desaparecer. Hacia el escenario.
Eras tú, seguro.
He recogido una sonrisa que se te cayó antes de irte.
La voy a guardar entre gotas de piano, notas de océano, floridos pensiles, brebajes etílicos…
Y palabras, palabras perdidas, buscadas, alguna encontrada, palabras que cruzan la cuarta pared en pos de cobijo, de sexo fortuito, en el trastero del alma.
Y te vas, te vas sin decirnos cuál es la llave que abre esa puerta.
Se ha hecho el silencio, un silencio pesado, un silencio conocido.



Kike Díaz de Rada con Isidoro Fernández, Maiken Beitia y Tania de la Cruz, en escenas de la obra *No me hagas daño*. Fotografía M. Díaz de Rada

En silencio, se ha encendido un cenital en el escenario, pero esta vez no has acudido.
Y entra cajas, después de compartir un cigarro a escondidas, te has ido.
Nos has dejado otra vez solos, bueno, solos no, pero sólo con tu recuerdo.
Buen viaje, amigo.
**Eneko**



Presentación en la sede de Dama (Madrid) de la Guía para el Trabajo con escenas íntimas en la ficción audiovisual

# AESCI LANZA LA PRIMERA GUÍA PARA EL TRABAJO DE ESCENAS ÍNTIMAS

El pasado 29 de mayo, la Asociación Española de Profesionales de la Coordinación de intimidad (AESCI), presentamos la primera Guía para el Trabajo con escenas íntimas en la ficción audiovisual, con el apoyo de CIMA (Asociación de Mujeres Cineastas y de Medios Audiovisuales) en la sede de DAMA, la entidad que gestiona los derechos de autor de medios audiovisuales.

Desde AESCI, hemos sentido la necesidad de lanzar esta Guía en este momento tan importante que está viviendo nuestra industria audiovisual, en relación a la toma de conciencia, reflexión y autocrítica en torno a ciertos comportamientos y prácticas. La naturaleza de nuestra industria conlleva una marcada dinámica de poder que, incluso con las mejores intenciones, por desgracia, ha provocado en más de una ocasión que el rodaje del contenido íntimo haya creado situaciones incómodas, coercitivas o incluso, en algún caso, episodios de violencia sexual.

Para nosotras, la piedra angular de nuestro trabajo reside en el consentimiento. En ningún caso somos “la policía del




sexo" como se nos ha llamado en alguna ocasión. Nuestro trabajo no consiste en censurar ni reducir la desnudez o el sexo que aparece en pantalla. Generalmente, ocurre todo lo contrario, ya que muchos intérpretes al sentir que les comunicamos de una manera clara, detallada y específica la información sobre la escena, el consentimiento y los límites de sus compañeros/as de escena, tienden a sentirse más seguros, mostrando una mayor disposición a hacer más de lo que habrían hecho sin coordinación de intimidad. Además, no sólo estamos ahí para asegurar que se respete el consentimiento y límites de los intérpretes, sino los de todo el mundo (el equipo también tiene sus límites). Otro pilar fundamental de nuestra función es la de tratar de mitigar ciertas dinámicas de poder que se dan en la estructura jerárquica del trabajo. Es muy importante transmitir a los/as productores/as, directoras/directores e intérpretes que gozan de mayor poder, que por muy amables, comprensivos y compasivos que sean, es muy difícil que un intérprete les diga "no" a realizar una escena de este tipo, la mayoría de los casos por miedo a ser reemplazados y que esto pueda afectar a su reputación profesional.

Nuestro propósito con respecto a esta Guía es ofrecer a la industria audiovisual española un marco de trabajo que permita afrontar el contenido íntimo a la altura de los estándares internacionales, integrar las escenas íntimas dentro de la narración y afrontarlas con la misma lógica y rigor con que se enfrentan las escenas de acción con especialistas, asegurar que se respeten los límites y el consentimiento de los actores y actrices en todas las fases de la producción, proporcionar una red de seguridad para que tanto intérpretes como el equipo técnico que trabaja en este tipo de escenas, respete el consentimiento y los límites de todas las partes implicadas y consiga mitigar posibles violencias.

La guía ha sido diseñada por profesionales con certificación internacional en coordinación de intimidad y una amplia experiencia en el sector televisivo y cinematográfico español. Para llevarla a cabo, nos hemos inspirado en el camino marcado por las industrias más pioneras en la gestión de escenas íntimas y en las instituciones que las han llevado a cabo como SAG-AFTRA (EEUU), BECTU (UK), o las guías existentes en India, Países Nórdicos, Australia, Canadá o Sudáfrica, para después adaptarlas a la realidad de nuestra industria audiovisual española y poder proponer un marco de trabajo realista y adaptable a nuestros rodajes, que ponga en el centro no solo la creatividad, sino también lo humano.

La Guía para el Trabajo con Escenas Íntimas cuenta con el apoyo de CIMA, DAMA, la Academia del Cinema Català, Associació d'Actors i Directors Professionals de Catalunya, Associació d'Actors i Actrius Profesionals Valencians, Dones Visuals, Euskal Aktoreen Batasuna, (H)EMEN y AAMMA, entre otras entidades.



**Rebeca Medina**

Coordinadora de intimidad. Co-fundadora de AESCI

# PANTAILAK EUSKARAZ, 3 URTEZ

2021eko ekainean euskarazko ikus-entzunezkoen aldeko lanean genbiltzan hainbat elkarte eta mugimendutako kideek bat egin eta Pantailak Euskaraz ekimena sortu genuen. Izan ere, kezkaz ikusten genuen gure bizitzetan geroz eta pisu handiagoa hartzen ari ziren pantailetan (smartphone, tablet, ordenagailu, TB,...) euskarak zuen presentzia urria. Ikerketek diotenez, hizkuntza ohituretan berebiziko eragina dute gure aisialdian ditugun esperientziek. Bataz beste, egunean 5-6 ordu igarotzen ditugu mota ezberdinetako pantailen aurrean, eta hauetan ditugun erreferente ia denak erdaldunak badira, ze hizkuntza hautatuko dugu gure egunerokotasunean?
3 urteko ibilbidean gauzak aldatzen hastea lortu dugu. Garaipen nagusia, euskarazko ikus-entzunezkoen gaia eztabaida sozial eta politikoan kokatu izana da. Euskaldun gehienok normalizatua genuen streaming plataformetan, zineman, edo sareetan euskarazko edukirik ia ez egotea. Orain, ordea, hizkuntza komunitate gisa, eta baita kontsumitzaile gisa ere, ditugun eskubideak aldarrikatu eta defendatu beharraren kontzientzia piztu dugu.
Horrekin batera, aurrerapauso nabarmenak eragin ditugu streaming plataformen munduan: merkatuan nagusi diren enpresak (Netflix eta Primevideo) euskaraz bikoiztu eta azpidatzitako edukiak txertatzen hasi dira (jadanik 170/200 eduki ikus daitezke euskaraz plataforma hauetako bakoitzean), eta garrantzitsuena dena, euskaldunok jadanik badugu euskarazko edukiz, bertakoak zein nazioartekoak, hornitutako streaming plataforma propioa, Primeran.
Euskal Herrian ospatzen den ikus-entzunezko ekitaldi nagusian ere, Donostia Zinemaldian, Sail Ofizialak euskarazko azpidatziak eskaintzen ditu iaztik, eta honek euskaldunok jaialdi honetan bizi genuen diskriminazio egoerarekin amaitzeko inflexio puntu bat ezartzeaz gain, gure hizkuntza nazioarteko erakusleiho honetan ikusgarri egiten du.
Baina lortutako garaipenez gain, hainbat erronka potolo ere baditugu parez pare: euskarazko zinemak eta zinemetan euskarak bizi duen egoera, esate baterako. Azken urteotan, bolo-bolo dabil agintari eta komunikabideen ahotan “euskal zinemaren loraldia”. IBAIA euskal ekoizle elkarteak, ordea, kontrakoa




Pantailak euskaraz taldekoek antolatutako ekintzetako bat Donostian

salatu zuen 2023ko maiatzean Eusko Legebiltzarrean: euskarazko zinema hilzorian dagoela esan zuen. Ez baita gauza bera “Cine Vasco” eta “Euskal Zinema”.

Egia da azken hamarkadan, arloko profesionalek egindako aparteko saiakerari esker, euskarazko zinemak ale zoragarriak utzi dizkigula, nazioartean ere ibilbide oparoa egin dutenak. Baina hori nahikoa al da “loraldiaz” hitz egiteko?

Aztertu ditzagun datu objektiboak: 2022an, euskarazko fikziozko film bakar bat ere ez zen estreinatu zinemetan: dokumental bat eta 3 animaziozko pelikula besterik ez. 2023an, berriz, euskarazko fikziozko lan bat izan genuen, Irati, 3 dokumentalekin batera. Horiekin, haurrentzat urtean Zineuskadik bikoizten dituen 10 filmak eskaini ziren. Laburbilduz: euskarazko eskaintza, Euskal Herriko zinemetan, %2koa da.

EAE eta Nafarroa azken putzak dira Estatuan hizkuntza koofizialeko ikus-entzunezkoen ekoizpenera bideratutako aurrekontuetan: Katalunia, Valentzia, eta Galizak diru gehiago inbertitu dute azken urteotan. Zorionez, 2024an, Jaurlaritzak ekoizleen eta herri ekimenen eskaerei erantzun positiboa eman, eta ekoizpenerako dirulaguntzak 2,4M€tik 7,3M€ra igo ditu, horietatik erdia baino gehiago euskarazko edukientzat izango direla bermatuz. Beharrezkoa zen halako apustu bat euskarazko ikus-entzunezkoen sorkuntza biziberritzeko, hau bideragarri egiteko, eta hauen aldeko apustua egiten duten profesionalen ziurgabetasuna gutxitzeko. Espero dezagun honek zinemetan (eta zeharka, plataformetan) euskarak bizi duen egoera hobetzen laguntzea.

Baina euskarazko ikus-entzunezkoek bizi duten egoera benetan iraultzeko, gure lurraldeetan araudi propioak garatzea eta ekoizpen eta bikoizketarako baliabide eta aurrekontuak biderkatzea ezinbestekoa izango da. EAEko Gobernu berriak norabide horretan pausoak eman ditzan lanean jarraituko dugu.



**Alex Aginagalde Lopez**
Pantailak Euskaraz ekimeneko bozeramailea

# **SORMENAREN PARTE IZAN** BIZKAIAN

**KRI-KRI, KRI-KRI**
Sinisten dut antzerkiaren gaitasun eraldatzailean. Barne tsunami kolektiboak bizi izan ditut antzerkiari esker. Zergatik orduan ez da tresna eraldatzaile hau hezkuntzan gehiago erabiltzen? Kri-kri, kri-kri.
Suposatzen dut bizi garen gizarte materialista, azeleratu, digitalizatu honek izango duela zerikusirik horretan ez? Baliteke... Makinen ezaugarriak dituzten pertsonak eskatzen dizkigu jendarteak geroz eta argiago. Hezkuntzak ere bide horri jarraitzen dio sarritan.
Panorama honen erdian arteak, kulturak eta horren barruan antzerkiak arrakala interesgarriak ireki ditzake. Horregatik emozionatu naiz prozesu honetan. Emozionatu nau aktoreen eskuzabaltasunak. Emozionatu nau koordinatzailearen konpromezu mailak. Emozionatu naiz nerabeek beraien buruak aktoreen larruetan islatuta ikusi dituztenean.
Emozionantea izan da bidea, proiektu honek, gazteak jartzen dituelako erdigunean. Haientzako espazio aske bat eraikitzea delako helburua. Beraiek nola ez, nabaritu dute eta eskertu digutela esango nuke. Ni bai eskertua, zuekin guztiokin une hauek partekatzeko aukera izan dudalako.
**Eneritz Artetxe** (zuzendaria)



Gipuzkoatik Bizkaira saltoka eta ekimenaren bi edizio nire motxila barruan, iada. Kontuz, titiritero, aktore eta pailazoak!! Nazaretek, aukerarik balego etorkizunean, errepikatu gura du ekimen honek eskaintzen duen bidai zoragarri eta aberasgarria.
Gazteen zerbitzura jarri gara, hala da, eta, konturatu barik, akelarrea sortu da: Alazne, Eider, Aitor, Gaizka, ni neu eta Eneritz Artetxe sorgin-burua. Edabe magikoaren formularen bila ibili gara. Lapikoan, hitzak, ametsak eta desioak: zalantzak, amildegia, lagunak, elkar lana, sorkuntza, hausnarketa, aniztasuna, elkar zaintza, sentikortasuna, enpatia, gozamena, duintasuna, galderak, ez-erantzunak eta gazteen ahotsak osagai nagusia. Entzumena izan baita gure egin behar gorena. Eskerrik asko Esther eta Euskal Aktoreen Batasunari!
**Nazaret Froufe**



Aurten ere, Sormenaren parte izan, Esther Uriak antolatutako proiektua Bizkaian landu eta ospatu da. Nere taldea, Eneritz Artetxeren zuzendaritzapean, Txorierriko institukokoekin egon gara eta esperientzia aberatsa izan da alde batetik eta kezkagarria bestetik.
Landuko diren gaiak nerabeek proposatzen dituzte eta azkenean talde artistikoak gai bat aukeratzen du. Eta beste urte batez gehien errepikatu den gaia Bullying-a izan da. Badirudi, momentu batean edo bestean sufritu



Gaizka Chamizo eta ikasle baten arteko besarkada hunkigarria. Argazkia Edu Errondosoro

dutela, biktima edo zigortzaile bezela. Seguruena bi alderdietan egon direla. Laburbilduz: adin hauetan (edo adin guztietan esan beharko genuke?) itsatsita dagoen rol bat da eta ikastetxeetan ekiditzea saiatu baino, ezinezkoa delako, landu beharko zuten eta nerabeei herramientaz hornitzea. Eta sortzaileak zer? Sortzaileok gai hau gehiago landu beharko genuke gure sorkuntzetan. Baina mina ematen du. Eta horregatik egin behar dugu.



**Aitor Fernandino**

Denboran labur gera daitekeen esperientzia izan arren, dudarik gabe inpaktoa bete betekoa da, bi norabidetan. Oraingo esperientziaz azpimarratu nahi nuke emanaldiaren egunean zehazki nerabe batekin eman zen interakzioa. Bera eszenatokira igo zen, pertsonaietako batekin zuzenean hitz egiteko, kasu honetan neure pertsonaiarekin. Elkarrekin arazo bati irtenbidea emateko modua, malko artean eta besarkada sakon batekin amaiera ematen, barrenak urtu zizkidan. Neure buruari galdetzen diot ea zein aberasten duen nor gehiago, antzerkiak nerabeak, ala nerabeak gu. Zenbat dugun ikasteko gure gaztetxoengandik!



**Gaizka Chamizo**

Hasieratik harritu ninduten, ikasketa izugarria izan da. Aktoreekin sormen prozesua hasi aurreko egunetan, institutuan giro etsai eta ez oso iragazkor batekin topo egitea espero nuen. Ordea, koadro errenazentista baten moduan agertu zitzaizkidan; argia, irekia, zoro samarra eta askatasun gogoz, baina bertako pertsonaiak begira zeuden; begiratzen begiratzea nahi zuten, geure begien bila, gure bila.
Gizarte heldu baten laginetik oso hurbil dago. Desberdintasuna da, duela gutxi haur izateari utzi dioten edo horretarako prozesuan dauden haur horietan (zaila da lerro hori marraztea) errazago aurki dezakegula aldaketarako tartea. Helduok, agian diplomatikoagoak gara (batzuetan), baina borroka berbera da: rolak, hierarkiak. Ez gaude hain irekiak aldaketarako.
Une oro asko gozatu nuen prozesu biziaz, aktoreez (pertsona zoragarriekin lan egin ahal izatea), eta nerabeen taldeaz. Agertokian pieza ikusi zuten eguna hunkigarria izan zen. Bestela egiteko gai ez badira edo ez badakite, dramako pertsonaien bidez egin ahal izan zuten. Haiek eta besteak ikusi zein barkatzeko aukera izan. Hunkitu ninduten, ederra, mingarria.



**Xabi Jabato** (zuzendaria)




Xabi Jabatok zuzendutako taldearen emanaldia. Argazkia Edu Errondosoro

Sormen Bizkaian-en parte izateko baiezkoa jaso eta giputxiz betetako taldean tokatu zitzaidan (ni ere giputxia naiz eh). “Kuriosoa!” pentsatu nuen eta lehenengo bileran elkartu bezain laster, motorra piztu eta aurrera egin genuen, denok bat.
Institutura iritsi ginenean gazteek aukeratu zituzten gai eta irudiak lantzen hasi ginen Estherren koordinazio pean.
Hodeietatik jeitsi eta errealitatera ekartzen zaituen esperientzia bat izan da. Txaloak jasotzearena bigarren edo hirugarren plano batera pasatu zen, guk eurak identifukatuta sentitzea genuen helburu, sinesgarria izatea eta beraien “ondo ekipo, ondo” horren bila genbiltzan emanaldi egunean. Antzerkia pertsona-harremanetarako erraminta dela ziurtatzen duen lana, aktoreak euren NIa (euren “ni”a?) alderatu eta beste erraminta bat izatera pasatu ginen. Laburbilduz (eta gehienezko karaktereak 600 izan behar direlako): SORMEN P.E.K. Gazteek irakatsi zidaten hau. Ez badakizu esanahia animatu datozen Sormenetara, jeje.



**Irene Hernando**

Sormenen aukera opari ederra izan da niretzat, eta bihotzez eskertzen diet hau dena sortu dutenei.
Ederra da esaten ez diren arazoak nabarmentzea eta izena jartzea, ederra metodoa eta ederrak gazte-nerabeekiko harremanak. Metodoa tresna mugaezina da azaleratzeko izkutukoa, ederra da komizitatearen tresnak ematea, ederraren errealitatea eraldatzeko magia eskeintzea. Neu pertsonalki zoriontsu sentitu naiz haien aldaketa ikusita. Lehen biziko egunetan mobilari lotuta zetozten gero hori ere baztertuta gurekiko hunkituta zeuden.



**Teresa Lpz. de Munain**

Gazteen adina eta egoerak kontuan izanda parte hartzea oso ona izan da eta ausardia handikoa iruditzen zait bakoitzaren egoera zein den ikusita beraiek erakutsi duten jarrera.
Zuzendariarekiko balorazioa ere oso ona da. Aktore bezala entzuna sentitu naiz eta taldea modu egokian kudeatu du bai aktoreena, bai gazteena. Azkenik, plazera izan da horrelako aktore puskekin lan egin eta aukera hau izatea. Pertsona bezala oso aberasgarria baita eskoletan jasotzen duguna, baita gure sektoreko jende berria ezagutu eta beraiekin denbora partekatzea ere. Mila esker aukeragatik, beste bat arte!



**Gaizka Sarasua**



Pablo Razuk emandako ikastaroa Donostiako lokalean bururu zen

# PABLO RAZUK:
# **HABITAR LA ESCENA**

El taller de interpretación "Habitar la escena" de Pablo Razuk ha sido una experiencia maravillosa y transformadora. Desde el primer día, Razuk con su pasión y maestría, nos presentó los 5 elementos básicos emocionales y nos guió a través del método de las acciones físicas, proporcionándonos herramientas esenciales para enfrentar cualquier escena.

El método de las acciones físicas nos llevó a una práctica constante y a la experimentación, permitiéndonos explorar cómo cada movimiento puede expresar una intención interna y cómo nuestras acciones afectan a nuestra emoción en escena.

También me volvió a conectar con la libertad a la hora de jugar en escena y me ayudó a llenar de información a cada personaje mediante imágenes. Enfrentarme a una escena ahora tiene un nuevo significado gracias a este seminario. La experiencia me ha aportado confianza, técnica y una comprensión renovada de la interpretación. Estoy muy agradecida a Pablo Razuk por sus enseñanzas y a EAB por organizar seminarios tan enriquecedores.



**Yoana De Luis**

San Bartolome kaleko aldapatxoa igo. Gela barruan ahotsak entzun. Atea iriki eta sartu. Aurpegi ezagunak eta ezezagunak. Urduri. Pablok izena galdetu. Nik erantzun. Berak hizketan jarraitzen du. Ni urduri.

Handik bi minutura; bai, bi minutura denok "etxean" geunden. Hura izan zen gutxienez nere sentsazioa. Lasai geunden denok. Beroketa ta gero ez zen sentsazioa, ziurtasuna baizik. Konfiantza hura abiapuntua izanda Pablok bere pauta teoriko garbiak eta ulergarriak ematen dizkizu jolasten hasteko. "Mapa" txiki bat sortzen laguntzen dizu. Gida bat testua prestatzeko. Testua zurea egiteko. Irudiz eta egoeraz betetzeko. Probatzeko. "Emaitza" hitza ez da existitzen.

Ikastaroak aldaketatxo bat eragin dit, "klik" txiki bat. Aktore bezela momentu honetan dudan barne egoera hobeto ezagutzera eraman nau, zer egin nahi/behar dudan jakitea ere.

Kontzeptu teorikoak oso garbiak eta ulertzeko errexak. "Mapa" polita hurrengo proiektuak eta lanak prestatzeko. Irakasle azkarra, argia. Gauzak errex azaltzeko gaitasunarekin. Guztiz gomendagarria.



**Iñigo Gastesi**




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundiak
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Bilbao

aisge
FUNDACIÓN

bilbo
eszena